

Aikor!

txorierriko aldizkaria



**ATHLETICEKO
TXORIERRIKO
NESKAK:**

**“GOI MAILAKO
TALDEEK
EMAKUMEZKOEN
FUTBOLA LAGUNDU
BEHAR DUTE”**

AUTOETAN BEHAR DUZUNA TXORIERRI BERTON



NEUMATICOS GALBIZ

Abenduan
betaurreko batzuk
irabaz ditzakezu.



Etorri eta galdetu

Pol. Ugaldeguren s/n [Derio]
Tfno.: 94 454 50 54



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragolti Ind., 8 - 216 Pab.
Tul.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Goiri '78 S. L.

Servicio Oficial



POL. IZARZA

Tfnoa.: 94 453 25 15

94 453 39 31

48150 SONDIKA (Bizkaia)

itv Euskadi SA

itv ARRIGORRIAGA

Bilbo - Zarguza autobidea
A-63 Km. 6,5
Kontakizapirako Tel.:
94 571 17 72

itv ZAMUDIO

Ugaldeguren 1 Industrialdea
8. Pertalea
Kontakizapirako Tel.:
94 452 20 20

BELOKALAKI AZTERKETA TEKNIKOK OFIZIALA

ALDEZ AURREKO TELEFONOA **94 452 11 13**

CARROCERÍAS
TXORIERRI



José Antonio Sanz

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Viala E. 10, Nave B3 1
Tel. + fax: 94 452 20 03

48016 ZAMUDIO
(Bizkaia)



AUTOEN IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA



94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelarragolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

TXORIERRI

Euskaraz dauzkagun izen ezin polita-
goen artean, ez dago dudarik ederreneta-
riko bat Txorierri dela. Izan ere, gogora
ekartzen digu lehenagoko garai hura,
geure ibarra baso handi bat -txorien bizile-
ku bat- zenekoa, nahiz eta gaur egun aha-
legin handiak egin behar diren haritz,
pago, arte eta landarezko paradisu hura,
historiaren lorratzak zoko guztietan ageri-
agerian dituen, irudikatzeko.

Lehendabizi, gorengo alderdiak popu-
latu ziren, arerioen eta piztien erasoetatik
babesteko. Geroago, lurak landu, abereak
hazi eta erreketako urak erabili beharrak
behera jaitsarazi zituen biztanleak.
Basomutil eta ikazkinen txabolak baserri
bilakatu ziren; Goikoelexaldeko eliza,
Bizkaiko Jaunek Gernikara bidean derrigo-
rrezko pausaleku eta zin egiteko toki izan-
go zutena, eraiki zen; Bizkargi gainean
batzarretara deitzen zen sua piztuz;
Lezama eta Zamudio dorretxeak altxatu
ziren; bandoen borrokek ibarra birrindu

zuten eta milaka urteko baso hura agortu
arte ustiatu zuten, dorretxeak eta gerra-
tresnak eraikitzeke eta suak kiskalitako
etxeak berriz altxatzeko; burdinolek abe-
rastasuna ekarri zioten eskualdeari, arbo-
len egurra sugaitzat hartuta; "burdinazko
gerrikoak" gerra hotsa zabaldu zuen,
baina soroak atzera landu ziren eta bizia
berriro sortu zen, beste hainbestetan
bezala.

Lurrezko bideen ordeztu porlanezko
errepideak egin dira; soroen ordeztu behi-
nolako basoa okupatzen duten aireportua
eta fabrikak daude gaur egun. Ibilgailuen
eta hegazkinen zaratak txorien txorrotxioa
ordezkatu du. Prezio hori ordaindu da
geure ibarra Bizkaiko eta, hortaz, Euskal
Herriko produkzio-motorrik garrantzitsue-
netarik bat bilakatzearen.

Beharbada, beharrezkoa izango da
atzean ez geratzea, mundua aurrera doan
bitartean, baina Gaztelumenditik begira-

tzen dudanean, behinola geure ibarra
estaltzen zuen harako arbolarte handi
hura irudikatzen dut eta gura nuke geure
ondorengoei arimarik gabeko burdina eta
adreilu multzo bat baino zerbait gehiago
uzteko gauza izango bagina.



Toti Martínez de Lezea
Larrabetzu, 2002ko azaroa



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara
Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren,
Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia,
Amagoia Guezuraga, Puri Martinez,
Maite Aranburu.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Oihana Astobieta, Basabildotza,
Lourdes Lasuen, Asier Oruetxebarria,
Belen Gana, Juanxu Bilbao, Mari Asun Abona,
Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi).

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra, Jagoba Zallo
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi
Maketatzailea: Ainara Torres
Inprimategia: Gertu
Ale kopurua: 4.750
Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



diruz lagundutako aldizkaria

ZER

NON

Eritxia.....	3
-Aikor!-ri gutunak.....	4
-Laburrak eta albisteak.....	5
-Erreportajea	
AthleticekoTxorierriko neskak.....	10
-Gazteak.....	13
-Zamudioko azoka.....	14
-Trenaren historia (I).....	16
-Baserri mundua.....	18
-Teknologia.....	19
-Aurkikuntza arkeologikoa "ustekabea".....	20
-Euskal selekzioaren aldeko taldea.....	22
-Txorienitarrak munduan.....	23
-Sukaldaritza.....	24
-Denbora pasa.....	25
-Agenda.....	26

gutunak

Atal honetan, "irakurleen gutunak" hain zuzen ere, zabaltzen dugu zuen ekarpenak, aholkuak, iradokizunak eta abar argitaratzeko eta, zelan ez, aldizkaria hobetzeko.

TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENA ZAMUDIO ERDIAN

Eskerrak eman gura ditut aldizkari honetan irakurleentzat zabaldu den atal berri honegatik, eta haren bidez jakinarazten dut Zamudioko herriaren erdian, ni bizi naizen etxearen fatxadatik 18 metrora, telefonia mugikorreko antena bat jarri dutela. Udalari eta bertako arkitektoari galdetu diet hura ipintzeko baimenik eman ote duten, baina jakinarazi didate ez zekitela ezer ere.

Antena horien instalazioaren ondorioz pizten diren gatazkei buruzko legediak eta jurisprudentziak babestu egiten dute hainbat urtetan monopolioa izan duen enpresa hori. Azkeneko sententzietan frogatuta gelditu dira telefonia mugikorreko antenen ondorio kaltegarriak, baina merkatu horrek minutuko hainbeste diru mugiarazten duenez, lege-proiektuak bere horretan gelditzen dira, alegia, epe luzerako proiektuetan. Urte batzuen buruan argi ikusiko da zein gaixotasun eragiten dituzten instalatzeagatik kobratzen dutenek orain ahazten dituzten antenek. Onak izango balira, ez lukete ordainduko hainbeste diru. Ibai nahasia, arrantzaleen irabazia!




MARIA ASUN ABONA BILBAO

2002KO ABENDUAREN 12 ETA 13AN, 6. EUSKARAREN EGUNA TXORRIERRIN JAIALDIA OSPATUKO DUGU LOIUN

Jaialdi hau urtez urte Txorierriko herri desberdin batean ospatzen da eta aurton Loiuri dagokio antolaketa lanetan aritzea. Aipatu bezala, hau 6. urteurrena da, eta jadanik Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten sei herrietatik pasatua izango da; 1997an Zamudion jaio bazen ere, 1998an Lezaman, 1999an Larrabetzun, 2000n Sondikan, 2001ean Derion eta aurton Loiun bizi eta biziko da.

Jaialdi honen helburua euskarak bailara honetan ere bere isla baduela gogoraraztea da.

Egun honetan adin guztietarako ekintzak egongo dira, bai umeentzat bai gaztetxoentzat, baita nagusientzat ere. Abenduaren 12an, goizez eta Loiuko frontoian, umeentzako pailazoak izango ditugu. Abenduaren 13an gaztetxoentzako tailerrak eta jolasak, bai goizez bai arratsalde; eta gauean, OSKORRI taldearen "Vizcayatik...Bizkaia" azken diskoaren emanaldia.



Testua: Lourdes Lasuen euskara teknikaria eta Loiuko Udala

COPISTERÍAS PROPLANOS

- FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
- COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLOTTEADO Y ESCANEADO DE PLANOS
- ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
- IMPRINTA RÁPIDA (TARJETAS DE VISITA, FACTURAS,...)
- PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
- CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS - FAX
- SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.
RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

URDULIZ
Edificio Mecánica de la Perla
TEL. 94.878.91.45

URDULIZ ALMACÉN
Igiltzera, 6 1ª Planta D
TEL. 94.430.40.10

SONDIKA
ERREMENTERI, 20 LOCAL
TEL. 94.453.57.91

Email: Proplanos@Sarenet.es
Web: Proplanos.euskalnet.net



ZAHAR ETXE BERRIA ZABALDU DUTE LOIUN

Urriaren 29an Loiuko zahar etxea inauguratu zen Aransotegi plazan. Lokalak 170 metro koadro ditu eta bertan, besteak beste, suetea, taberna eta batzar-gela jarri dira. Zerbitzu berria zabaltzeko 250.000 euroko inbertsioa egin da. Kopuru horretatik Bizkaiko Foru Aldundiak 90.000 euro jarri ditu eta Loiuko Udalak, berriz, gainera guztia.



DERIOKO HILERRIKO ZAHARBERRITZE LANAK AMAITU DIRA

Derioko hilerriko eraikin enblematikoenak zaharberritzeko lanak oraintsu amaitu dira. Lanak orain hiru urte hasi ziren eta zutabe sail zentrala, kapera eta kaperauaren etxea zaharberritzea izan dute helburu, izan ere, eraikinak nahikoa hondatuta zeuden hezetasunaren ondorioz.

Beste alde batetik, aipatutako eraikinez gainera, egurrezko egiturak eta pinturak ere berritu behar izan dira.

Zaharberritze lanak egiteko, 1,9 milioi euroko inbertsioa egin behar izan da.



Sondikako Udalak gerra denboran bahitutako agiriak eskuratu ditu

Euskal Udalen Elkarteak (EUEDE) gestioak egingo ditu Espainiako Gobernuaren aurrean, udal batzuei gerra denboran eta ostean kendutako dokumentuak itzul ditzan. Sondikako Udalak bat egin du ekimen horrekin, eta era horretan 1930 eta 1940ko hamarkadetan bahitutako agiriak berreskuratu nahi ditu.

Agiri horien artean, udal aktak, errefuxiatuen datuak edo ume-zerrendak daude. EUEDEn arabera, aipatutako agiriak errepresaliak hartzeko erabili ziren.

AENak Loiuko Udalari zor eutsozan 3 milioi euroak ordaindu deusoz.

AENak aireportu barriko obren lizenziengaitik

Ordaindu barik eukazan tasak eta interesak ordaindu deusoz Loiuko Udalari. Sei urte behar izan dira, baina azkenean, loiuatarrek 3,1 milioi euro (518,6 milioi pezeta) izango dabez herrian inbertitzeko. Kopuru hori nahikoa garrantzitsua da Loiuko lango herri baten zatia, urte eta erdiko aurrekontuaren beste suposatzen dau eta. Iñaki Gaztañaga Loiuko alkateak komunikabideei esandakoaren arabera, diru horregaz herriko kale batzuetan espaloiak egingo dira, ganadu azokako tokia eta frontoia konpondu, udal bulegoak handitu, saneamendu lan batzuk egin eta auzoetan parke eta kirol gune barri batzuk jarriko dira. Horretaz gain, akordio hori dala medio, Loiuko herriak 15.000 m²-ko sail bat berreskuratu dau eta Usoa-n dagozan 30 komertzioek be euren egoera legeztatu ahal izango dabe.

Txorierritar bi saritu dira Gernikako azokan

Gernikako Urriko Azken Asteleheneko azokara joan ziranak kalitate handiko produktuak erosteko aukerea euki eben. Batez be, udagoieneko jeneroak eskatu ziran: mota guztietako indabak, piper sikuak, intxaurrak...

Beste alde batetik, txorierritar biri saria emon eutsien euren produktuen kalidadeagaitik. Alde batetik, Emilio Mateos loiuztarra saritua izan zan lora kategorian, eta bestetik, Maximiano Agirre Lezamako txakolin-egileak eskuratu eban beste sari bat.

GAMINIZ
RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudio Parke Teknologiko Tel: 94 431 70 25
Harrera 212 E-mail: gaminiz@euskaltel.net
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA) www.gaminizrestaurant.com

HOTELA
JATEXEA

ERREKA + EATXEA

Olaso Gurgosentxako

Arriaga sarea, 62
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 431 41 17
Faxa: 94 431 41 18
E-mail: hotel_aretxarte@telefonos.es

ERREKA
HOTEL

ETXEA

Ugiteko menua, arratsko menu berria, karta, erreserba elektronikoa, jantzerak, familia hantzerak

Arriaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Telefonoa: 94 432 14 19
Faxa: 94 432 26 29

hotela
jatekxtea
aretxarte

Teknologi Parkea - Erakuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



ZAMUDIOZTARREK OSA-SUN ZENTRO BERRIA DUTE

Zentro honekin osasun laguntza eskainiko zaie Zamudioko 3.063 bizilagunei. Hartarako, famili mediku bik, hiru erizainek, pediatria batek eta administrari laguntzaile batek jardungo dute bertan lanean.

Osasun zentro berria eraikitzeko, Zamudioko Udalak 485.000 euroko inbertsioa egin du eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun-materiala jarri du.



TRATU TXARREN AURKAKO IBILALDIA EGIN DA DERION

Arrastiko seiak aldera, San Isidro elizatik irten zen manifestazioa pankarta baten atzetik. Ibilbidean zehar begizta zuriak banatu ziren. Ibilaldia amaitu ostean, Emakundek eta Sutondoan taldeak prestatutako komunikatuak irakurri ziren Udaletxean.



CENTRO MASAJE

LASAI



700 Wilshire, 417 (enfr.)
 90018 LOS ANGELES (California)
 Tel.: 944 441 5376
 Móvil: 922 74 24 07
 Fax: 944 411 8070

Fax: 922 74 24 07

Ganix
WHITAKER - GEMOLOGIST

Gernikako Arbela Etorbidea, 2
(surrea Goiko Kaletik)
Tfnax.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaka)

OLENTZERORI GUTUNEN LEHIAKETA ZAMUDION

Lagatzu Euskera Alkarteak antolatu eta Udalak babes-tutako lehiaketa honetan, Zamudioko umeei Olentzerori gutuna idazteko eta parte hartzeko aukera izango dabe.

Laugarren edizino hau hiru kategoriatan banatuta egongo da eta lehen hezkuntzako umeei zuzenduta dago. 1. eta 2. mailakoen gutunek 5etik 10 lerroa bitarteko luzera izango dabe; 3 eta 4. mailakoena orrialde batekoa, eta 5 eta 6. mailakoena orrialde batetik gorakoa. Olentzerok eskolako patioan batuko dauz gutunak, abenduaren 24an gure herritik egingo dauan bisitaldian.

Sari ugari izango da material didaktikoa erosteko diru-txarteletan. Pello Añorgak abenduaren 30ean egingo dauan saioan banatuko dira sariok.




ALERION MADRILERA DOA ETA ITPK 30 MILIOI EUROKO KONTRATUA SINATU DAU

Zamudioko ITP eta Gasteizko Gamesa enpresek osatzen daben Alerion talde aeronautikoak Madrilera eroango dau egoitza sozila eta erabagi horrek sekulako ekaitza sortu dau Euskal Herri osoko alderdi politiko, sindikatu, enpresari eta gobernuetako kide-en artean, aspaldian barri honek komunikabide guztietan izan dauan oihartzunak erakusten dauan moduan.

Gehienek Madrilek Euskal Herriaren kontra bultzatutako pre-sio politiko eta ekonomikoaren ondorio dala salatu dabe eta kez-katuta azaldu dira hemendik aurrera egon daitekezan beste kasu batzuengaitik.

Beste alde batetik, Zamudioko ITP enpresak Air Nostrumegaz hamar urterako 30 milioi euroko akordioa sinatu dau konpainia horren hegazkinetako motorren mantentze lanak egiteko.



Zamudioko ITP enpresa

hormigones

de zamudio

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

- Hormigoi-kamioi ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkarra

Torrelanragoiti ind., 7-9 • 48170 Zamudio - Bizkaia
Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65
E-mail: hormizamudio@jazzfree.com

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, linbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

LEIRE BEGOÑA

ILEAPAINDEGIA

UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO

HARATEGIA

J. ELORRIAGA

Etako berezitasuna: bertoko ukela


Domestika, 7 bilbo: 94 453 89 41 LARRABETZU

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEAK LIBURU BERRIA AURKEZTU DU

Azaroaren 21ean, Toti Martínez de Lezearen *Los hijos de Ogaiz* nobela aurkeztu zen Bilboko Urretxindorra liburutegian.

Frantziako eta Nafarroako errege Karlos I.a hil zen 1328an eta, seme-alabarik izan ez zuenez, Koroa ondorengorik gabe gelditu zen. Une zail horien kontakizunari beste elementu batzuk erantsi zaizkio, hala nola ordura arte Nafarroan finkatutako Olgacena judutegiaren ezerezte, lehortea eta izurri beltza.

Testuinguru horretan, egileak familia biren arteko tirabirak azaltzen dizkigu. Larrabetzuko idazlea oso pozik geratu da eleberriarekin. Haren esanetan, nahiz eta istorioa kontestu historiko zehatz batean garatu, trama osoa asmatu du eta imajinarioaren mende utzi du protagonisten patua.



Parke Teknologikoaren eta EHuren arteko hitzarmena

Zamudioko Parke Teknologikoak EHUguz sinatutako hitzarmena dala medio, Parkeko enpresen esku geratuko dira, hareek hala eskatu ostean, unibertsitateak egiten dabezan ikerketak.

Ganera, enpresetan lanean dabilten teknika-riei prestakuntza ikastaroak emango jakez. Hitzarmena EHUko errektore Manu Monterok eta Parke Teknologikoko lehendakari Mauri Lazkanok sinatu dabe.

Parke Teknologikoko enpresetati ia erdiak kalitatearen ziurtagiria daukate

Zamudioko Parke Teknologikoan kokatuta dagozan 110 enpresetatik % 48ek kalitatearen ziurtagiria dauke. Euren artean ZIV, Euskaltel eta ITP dagoz.

Eusko Jaurlaritzak 2005 urterako % 50era heltzeko helburua eukan eta Parkeko ardura-dunak helburu hori ondo beteko dalakoan dagoz, Kalitatearen Astea adierazo dabenez.

**ZURE HERRIAN GERTATUTAKO BERRIREN BAT KONTATU NAHI
IZANEZ GERO DEITU TELEFONO ZENBAKI HONETARA: 94 452
34 47 EDO E-MAIL BIDEZ BIDALI: aikortxori@yahoo.es
ZURE PARTE HARTZEA ESKERTUKO GENUKE**



**LIBRERIA
SONDIK
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
populargintza eta eskularrak

Mikel Zarate, 2 Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48100 SONDIKA (Bizkaia)



**GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOA**

Luis Fernando Aguirre

Makabe Hiriaren aurrealdea, 1 - Ibaeta Nervion, 3 - 48940 Ibaeta
Tfnos.: 94 453 33 28 Tfnos.: 94 423 42 42
Faxa: 94 453 50 Faxa: 94 423 61 70
48100 SONDIKA - Bizkaia 48101 IBAETA



Zerurena Jatorria

Erremonterri Kalea, 22
Tfnos.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

200 PERRETIXIKO KLASA ARETXABALAKO ERAKUSKETAN

Testua: Patxi Gaztelumendi

Argazkia: Iñigo Gaztelu

200 perretxiko klase ikusteko aukera eskaini zuen Aretxabala kultur elkarteak urriaren 27an egindako erakusketan. Larrabetzuar ugari aurreko egunetan mendian ibili zen perretxiko bila, eta denak batu eta sailkatu ostean Andra Mari kalean erakutsi zituzten. Jatekoak batzuk eta ikusteko baino ez besteak. Aretxabala barruan, berriz, gura beste perretxiko jateko aukera. Jende asko batu zen domeka goiz eta eguerdiz Larrabetzuko urian.



HERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

Testua: Patxi Gaztelumendi

Argazkia: Iñigo Gaztelu

Urtetik urtera arrakasta handiagoa dauka Arrekikili euskara elkarteak antolatutako herriko baserriarren azokak. Larrabetzun gaur egun dauden baserrietako produktuak ikusi eta erosteko aukera egon zen: ortuariak, txakolina, ogia, pastelak, arrautzak, fruta-arbolak.... Abere eta

hegaztiekaz be etorri zenik egon zen Larrabetzuko plazan urriaren 26an, zapatuz.

Giro oso ona, Larrabetzun ondino be ikusi eta dastatu ahal diren produktuak azokan. Globalizazioak ondino ez du eragin askorik eduki gure herrian.



Konekta zaitez gunea arrakastatsua

Larrabetzura ere heldu da Informazioaren gizartea. Anguleri jauregia inaguratu barik dagoen arren, bertako azken solairuan Konekta Zaitez gunea jarri du Eusko Jaurlaritzak. Eta herritarren artean hitzetik hortzera dabilta egunotan posta elektronikoa, web orriak, birusak eta antzeko gaiak. Goiz eta arratsalde astebeteko hainbat ikastaro burutu da, eta Internetetik keza sortu da herrian. 100dik gora lagunek eman du izena dagoeneko, eta bertako ordenadoreetatik Internetera doan konektatzeko aukera eskaintzen du KZ guneak.

Behobia-Donostia lasterketarako autobus bete larrabetzuar

Azaroko bigarren domekan ospatzen da beti Behobia-Donostia maratoi erdia. Larrabetzun beti egon da lasterketa herrikoi horretara joateko zaletasun handia. Aurten ere autobus bat abiatu da bertara, korrika egiteko batzuk, eta haiek animatzeko beste talde bat. 21 kilometro korrika egin ostean, banaka-banaka larrabetzuarrak gogoz heldu ziren Donostiara. Azkarrenak Aner Gorostiola eta Iñigo Gallarzagaitia izan ziren mutilen artean; Saionara Barrena, Olatz Hormaetxe eta Maripi Agirre izan ziren emakumezkoetan animatu zirenak. Donostian talde osoa batu ostean, ondo merezitako bazkari ederra egin zuten Zarautzen.

625 urteko Larrabetzuko historia www.larrabetzu.info gunean

Informazioaren aroan gauden arren, ondino euskaraz dagoen informazioa urria da Interneten. Iaz, Larrabetzuko uria sortu zela 625 urte bete ziren, eta batzordea sortu zen ekitaldiak antolatzeko. Egindako lan guztia webgune baten bilduta dago eta www.larrabetzu.info gunera joanda ikusgai dago. Larrabetzuko historiagaz batera, herrian burutu ziren ekitaldi guztietako argazkiak ikusiko dituzu bertan.

Testuak: Patxi Gaztelumendi

GARRAIOLARIA



Miguel Angel Lokac:

Andra M^{te}, 151
LARRABETZU
Tfnos. 94 452 80 20

**ALDIZKARIAN PUBLIZITATEA JARRI GURA DUENAK
DEITU BAINO EZ DU EGIN BEHAR**

TLFNOA: 94 452 34 47

E-MAIL: aikortxori@yahoo.es

CLINICA DENTAL
ZAINDUZ
HORTEZ KLINIKA

Jesus Enrique Lopez Hidalgo
Odontologo

Dr. D. Manuel Serra Cabrera
Ortodontia

Atentioa: 94 452 80 20 (Larrabetzu)
Tfnos. 94 452 80 20 (Larrabetzu)
94 452 80 20 (Larrabetzu)

Albaitaritze

HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA

Miliet Henar Ortundo
Tfnos. 94 452 34 47
94 452 34 47 (Larrabetzu)

DERIO


LARRABETZU 24 orduak.
Tfnos. 94 452 34 47 - Larrabetzu 24/7

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Kirolde Zerbitzua: 94 452 34 47 (Larrabetzu)
Kirolde Zerbitzua: 94 452 34 47 (Larrabetzu)
Kirolde Zerbitzua: 94 452 34 47 (Larrabetzu)

ATHLETIC EMAKUMEEN FUTBOL TALDEKO TXORIERRITARRAK: “GEURE AMETSA BETE DUGU”



Txorierriko neskak oso pozik agertzen dira lortu dutenarekin

Nork esango zien neska hauei inoiz Athleticen jokatuko zutela? Bada, azkenean egia bihurtu da amets hori. Athleticen eta Leioa emakumeen futbol taldeak akordio bat sinatu zuten eta abuztuan emakumeen lehenengo taldea aurkeztu zen San Mamesen, hau da, Athletic sortu eta handik 104 urtera. Denboraldi-aurre ezin hobe eginda eta Super Ligan sartuta, Athleticen neskak gogor entrenatzen ari dira, orain arte erakutsitako maila onari eusteko. Orrialde hauetan Txorierriko hiru jokalarik esperientzia horri buruz egin digute berba. Euren izenak dira Julene Guarrotxena (sondikarra), Iraia Iturregi (loiuztarra) eta Arrate Orueta (lezamarra).

Leioa futbol taldetik Athleticera pasatu zarete. Zelan hartu duzue egoera berria?

Arrate: Athletic itzal handiko taldea da eta jarraitzaile asko ditu. Proiektu honetan parte hartzeak, beraz, egundoko poztasuna ematen digu. Ametsa bezalakoa izan da.

Julene: Bai. Txikitan eta, gainera, neska izanda pentsatzen duzu: “Athleticen jokatuko banu...” eta, begira, lortu egin dugu. Beste alde batetik, komunikabideek

gure berri eman dutenez, kanean ere zerbait berezia nabaritzen da. Jendeak hurbildu eta galdetzen dizu zelan doazen gauzak. Lehen ez zen halakorik gertatzen.

Iraia: Leioan jasotako tratua eta instalazioak oso onak izan arren, Lezaman handiagoak dira baliabideak. Honetaz aparte, jendetza handia etortzen da gu ikustera. Hasieran uste genuen nobedade-agatik izango zela, baina harmailak zalez gainezka izaten dira domeka guztietan. Horrek izugarri motibatzen gaitu.

Abuztuan Athletic Emakumeen Taldea aurkeztu zen San Mamesen. Zelan gogoratzen duzue egun hori?

Iraia: Estadioa jendea beteta zegoen. Nik zelaia zapaldu nuenean ezinezkoa zela pentsatu nuen.

Arrate: Minutu bi oso biziak izan ziren. Irten bezain laster jendea zutik jarri eta txaloka hasi zen. Hura bai zalaparta! Himnoa ere ez zen entzuten! Egundak ahaztezinak, benetan.

Julene: Egundak horretan argi geratu zen zaleek taldea ilusio handiz hartu dutela.

*“Aurkezpen egunean
argi geratu zen
zaleek ilusio
handiz hartu
dutela taldea”*

Eta debuta Lezaman?

Iraia: Urrian izan zen eta Torrejonen kontra 7-1 irabazi genuen. Jendetza handia egoteaz gainera, komunikabideak geure zain zeudela bagenekien eta nahiko urduri hasi ginen partidua jokatzeko. Gero, zaleen laguntzari esker zailtasunak gainditu genituen.

Julene: Arrate eta biok ez geunden konbokatuta eta harmailetan zegoen giroaz beste era batean ohartu ginen. Gero eta jende gehiago etortzen zenez, halako momentu batean ez zegoen gehiagorentzako lekurik. Hor zegoen giroa ez da ikusten beste zelai batzuetan.

Arrate: Leioan, 500 lagun etortzen ziren gure partidua ikustera, eta Lezaman 2.000 lagun bildu ziren. Pentsa! Goiko zelaian bazegoen beste partidu bat eta hasieran pentsatu genuen hara joango zirela, baina ez.

Taldeak ikusmin handia sortu du. Zuen ustez, denbora laburreko kontua da edo luzaro iraungo du?



Iraia (loiuztarra) primeran kontrolatzen du baloia

*“Taldeak ikusmin
handia sortu
duen arren,
“boom”-a pasatu
egingo da”*

Arrate: Athleticek gure taldea hartuko zuelako berria zabaldu zenean, ikusmin itzela sortu zen arrazoi askorengatik. Alde batetik, inoiz ez delako pentsatu Athleticek emakumeen taldea izango zuenik eta, bestetik, mutilak ez dabiltzalako oso ondo. Gure emaitzak onak dira eta jendeak itxaropen handiak ditu gugan, baina boom-a pasatu egingo da.

Iraia: Nire ustez, super ligan sailkapen ona lortzen badugu, zaleen erantzunak aldekoa izaten jarraituko du. Era berean, komunikabideen laguntza ezinbestekoa izango da, horiek giltza dute eta.

Zelan ikusten duzue emakumeen futbolaren egoera?

Iraia: Orokorrean, maila nahiko eskasa da. Egoera hobetzeko, lehenengo eta behin, goi mailako taldeek emakumezkoen futbola lagundu behar dute, Athleticek egin duen bezala. Izan ere, taldeek dirua behar izaten dute eta erregionaleko ekipo bati ezin zaio eskatu emakumeen taldea mantentzea, baina haiei bai. Beste alde batetik, futbol eskolak bultzatu behar dira. Neskei txikitatik animatu behar zaie futboleko jokatzera, eta Athleticekin proiektuarekin lortuko dela uste dut.

Julene: Eskolarrak bukatu eta gero, neskak arazoak izaten ditugu, ez dagoelako kategoria guztietako talderik. Orduan, askok futboleko aritzeari uzten diote edo urte gehiago dituzten neskekin jokatu behar dute eta hori ez da normala. Leioako eskolarekin hutsune hori betetzea lortu zen, baina gehiago egin daiteke. Bai udalek bai eskolek arazo honen ardura hartu beharko lukete.

Emakumeak izateagatik oztoporik duzue?

Iraia: Oztopoak baino gehiago, detaile batzuk ikusten dituzu. Adibidez, erregionaleko edozein mutil taldek prima edukitzen du partidu bat irabazteagatik. Guk, berriz, aste osoa ematen dugu entrenatzen, partidu onak egiten ditugu eta ez daukagu ez soldatarik ez ezer. Dena dela, geu ikustera 2.000 lagun etortzea eta partidua irabaztea saria da guretzat.

Arrate: Aurten ezin dugu gehiago eskatu, oso pozik gaude lortu dugunarekin.



Julene (sondikarra) jokalaria bikaina da

*“Futbol eskolak bultzatu
behar dira”*

*“Geu ikustera 2.000
lagun etortzea
eta partidua
irabaztea saria
da guretzat”*

Julene: Estatuko beste talde batzuk soldatak ordaintzen hasi dira. Athleticek dinamika horretan sartu beharko du, goi mailan jarraitu nahi izanez gero. Bestela, jokalaria onenek beste klubetara alde egingo dute.

Pribilegiatuak zarete?

Arrate: Dudarik gabe. Hemen ditugun instalazioei begiratu baino ez diezu egin behar. Gastu guztiak ordainduta dauzkagu: bidaia, arropa, medikua...

Iraia: Neska askok ordaindu behar dute futboleko jokatu ahal izateko, eta, gainera, baldintza txarretan... Hemen erreginak bezala gaude!

Athleticeko kamiseta janzte a lortu duzue. Espero duzue inoiz San Mamesen jokatzea?

Arrate: Bai. Zale asko etortzen dira domekero eta Lezama txikia geratzen ari zaigu. Orduan, ez dinamika bezala, baina oso partidu garrantzitsuak izanez gero, posible ikusten dugu.

Super ligari dagokionez, zeintzuk dira zuen helburuak?

Iraia: Lehenengo postuetan egotea espero dugu. Argi dago Levante faboritoa dela eta liga erraz irabaz dezakeela. Hala

ere, dena ondo ateratzen bada, guk ere sorpresaren bat eman dezakegu... Badaezpada ez daitezela erlaxatu!

Super Liga irabazita, gabarra ateratzeko asmoa duzue?

Arrate: Merezki dugu, gogor entrenatzeaz gainera ikasten edota lan egiten dugulako, baina gai horrek aurkako asko ditu eta ziur nago ez duguna aterako.

Iraia: Gabarra historikoa da eta ondo legoke... Super Liga irabaztearekin konformatzen gara.


Julene: Zerbait berezia egin beharko genuke. Mutilek zergatik atera dezakete eta guk ez? Hor dago koska!

“Athletic soldatak ordaintzen hasten ez bada, jokalaria onenek beste klubetara alde egingo dute”

“Zale asko etortzen dira domekero eta Lezama txikia geratzen ari zaigu”

“Levantekoak ez daitezela erlaxatu badaezpada!”

“Super liga irabaziz gero, gabarra ateratzea mereziko genuke”



Nahiz eta lesionatuta egon Arrate (lezamarra) sasoi onean dago. Edozein momentuan jokatzeko prest

Testua: Itxaso Marina



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

**LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK**

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

San Juan Hortz Klinika



Alameda de Euzkadi, 1 - Zentro zaharra
Tel: 94 452 11 80 - 94 452 11 81

. Implantazio eta kirurgia
. Odontologia orokorra eta maxilarra
. Herio osaketa
. Periodontia
Dentista berrak eta zaharrek

ASIGURU TXARTELAK
Asiguratuta dagoenak 24 orduko laguntza dute.

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Martin auzoa, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 00 88 - 55
Faxa: (94) 452 11 46



ZER ESAN BEHAR DUTE GAZTEEK ATHLETICEKO TALDEEI BURUZ?



NEREA ALZIBAR

Futbola gustuko duzu? Ez asko, nik arku-tiroa praktikatzen dut.

Dena dela, Athleticceko mutilei buruzko zerbait esateko izango duzu, ezta? Bai, beti galtzen dutela.



ELENA LOPEZ

Eta zu futbol zalea zara? Bai. **Zelan ikusten dituzu Athleticceko mutiak?** Nahiz eta orain ia partidu guztiak galdu, maila ona dutela pentsatzen dut.



JANIRE ABONA

Athletic zalea zara? Beno... **Zure ustez, ondo jokatzene dute Athleticceko mutiek?** Bai, baina, antza, beste taldeek hobeto jokatzene dute.



AITOR ALBIZAR

Ikusi duzu inoiz partiduren bat? Bai, behin batean. Torrejonen kontra, eta irabazi egin zuten.

Zure ustez, futbolari onak dira? Denboraldia txarra izan arren, bai.



NAHIKARI BILBAO

Nola ikusten dituzu Athleticceko jokariak? Ondo. **Baina, jokari onak direlako edo mutil katxarroak direlako?** Arrazoi biengatik.

Zein duzu gustukoena? **Gerrero, agian?** Ez, guztiak orokorrean...



ENERITZ LARRAÑAGA

Zer deritzozu Athleticceko emakumezkoen taldea izateari? Ondo, edozein kiroletan mutilek eta neskek aukera bera izan behar dute eta.

Nortzuek jokatzene dute hobeto? Hori ez da sexuaren kontua, prestakuntzarena baizik.



ARITZ GOIRIZELAIA

Ikusi duzu inoiz Athletic emakumeen taldearen partiduren bat? Partidurik ez, baina entrenamendua bai.

Futbolariak hankak begiratzera joan zinen? Ez!!!!... Nerea Onaindia nire irakaslea izan zen...

... eta? Oso jokari onak dira.



GAIZKA PEÑAFIEL

Neskek mutilek baino hobeto jokatzene dute? Agian, bai. Garra edo adore gehiago jartzen dute zelaian. Ez diote ematen hainbesteko garrantzirik diruari, baizik eta izan duten aukerari.

Eta Athleticceko mutiek? Azken aldia ematen du ez dutela lanik egin behar. Hilabetero kobratzen dute eta ez dira akordatzene jokatzene. Hori argi ta garbi nabaritzen da zelaian.



AZAROKO LEHENENGO DOM

Aspaldian nonahi daukaguz azokak eta bakoitzak berezitasunen bat eskeini gura izaten dau, azoken egutegi estuan lekua egin eta izena eta ospea lortu guran. Aurreko Aikor!-en aitaturten genduan kalitateari eustea zala aurtengo erronkeka Zamudioko azokan, eta ikusitakoa ikusita, helburua ondo baino hobeto bete zalakoan gagoz.



Txakolinaren kalitatea begi-bistakoa zan



Euskal pastela goxo baino goxoago!



Jendetza bildu zen azokan

Aurten hamazortzigarren edizinoa egin da eta, beti esan izan dan moduan, esperientziak asko irakasten dau. Horregaitik, antolatzaileek filtroak jartzen dabez erakusleen artean, beste era bateko azoketan ibiltzen diren saltzaileak lekuri izan ez dagien, eta urterik urte Bizkaiko azokarik garrantzitsuenetan euren genero onakaz sarituak izaten diren produktoreak Zamudiokoan be izan daitezten.

Postuetatik osteratxo bat egin eta, bertoko produktoreetatik aparte, izen eza-gun ugari ziren erakusleen artean, gero lehiaketako sari banaketan ikusi ahal izan genduan moduan. Loratan irabazlea M^a Jesus Biteri izan zan; frutetan, Jose Etxebarria; barazkietan, Adela Andikoetxea eta, herrikoen artean, Itziar Zarate; Oletxe irabazle suertatu zan txakolin gorri eta baltzakaz; Juan Angel Gerediagak, barriz, txakolin zuriagaz irabazi eban; herriko txakolin-egileentzat gordetako hiru sariak (txakolin zuria, baltza eta gorria) be Oletxek eroan zituen.

Loren atalean hiru postu egon ziran, eztian bederatzi, artisauak hamabi, barazkietan zortzi, frutetako sei, gaztaiakaz bederatzi, ogi eta pasteletako hamabi, txakolin egileak hamahiru, eta odoloste eta txorizoetan hiru. Sail guzti honeetarako 2.000 euro inguruko sariak banatu ebezan antolatzaileek.

Ganaduen sailean goi mailako 105 abelburu izan ziran. Aitaturteko modukoak

dira iaz be txaroles arrazakoetan hainbat sari eskuratutako Ramon Unibasok aurten be zortzi lehen sarietatik bost eskuratu dauzala eta beste bana Luis Angel Zaratek, Juan Gomezek eta Amets Lekuk. Herrikoen artean Luis Angel Zaraterentzat izan ziran guztiak. Limousin arrazakoetan Juan I. Landetak eroan zituen lehenengo sari guztiak eta baita herrikoak be. Pirenaikatan Jose M^a Zugazagarentzat izan ziren lehen sariak eta Jabier Izurietaentzat herrikoak. Pardo alpinatan Eneko Zuloagak lehen sari bi eta herriko guztiak eroan zituen eta Purificación Zuazuak beste lehen saria. Ganaduen atal guzti honeetan be, 2.000 euro inguru banatu ziren sarietan.

Denbora tristeia baina jende asko eta giro polita

Zerura begiratu eta goiz guztian lagun izan genduzan laino baltzak ikusita, luzetara ia 300 metrotan jarri ziran 73 postuetatik buelta arin bat emon eta txosnetan talo bero bat txorizoagaz hartzera gonbidatzen eban eguraldiak. Azkenik, aterri egon zanez, sekulako jendetza batu zan aurten be eguerdi partean (zortzi mila inguru antolatzaileen esanetan). Urtero gertatuten dan moduan, egun honetan kanpoan bizi diren eta azokara etorten diren hainbat herriko seme, lagun artean elkar ikusi eta egoteko aukera polita izaten dabe.

Giroari jagokonez, "Bertoko" taldeko hogeita hamarretik gora trikitilari eta pandero-jole izan genduzan batetik bestera bere doinuekaz ingurua animatzen.

cianoplan s.a.

Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio

Tfnoak 944 20 97 91
944 20 97 87

<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

EKAKO AZOKEA ZAMUDION

*“Bertoko taldeko
trikitariek eta
pandero-joleek bere
doinuekaz ingurua
animatu eben”*


Lagatzu euskera alkartekoak be bertan izan ziran euskaldunak egoazan postuetan, jendeari euskeraz eskatu eta erosteko gonbidatuz, kartelak ipinten, aurreko urteetan egin daberen moduan. Aurten arlo honetan laguntza moduan erabilteko, azoketan egoten diren produktuen hiztegitxo bat be zabaldu eben postuetatik jendeari emoteko, egun honetarako atara daberen triptiko baten.

Errebindikazioetarako lekua be izan zan. Berton egon ziren Zamudiko Gazte Asanbladakoak, urtero bezala, sari banaketan kartelakaz eta jendeari orriak banatuten, herriko gazteentzat gaztetxea eskatzeko.

Deigarria izan zan, beste alde batetik, Hegoamerikako etorkinen -perutarrek, batez be- partehartzea azokan. Bere postu koloretsuetan egoan mugimendua ikusita, jendearen artean ikusmin handia lortu ebela esan geinke. Badirudi euren lurraldeetatik ekarritako produktuek harrera ona daukiela geure artean.



Ortuko produktuak bikainak ziran



Ganaduen erakuslekuak ikusmin handia sortu eban



Gestión Zamudio
Abolkularitza Tiskala
Jon Vázquez García
AKUNTZA, LURRUGALAZIA
Gurebela 7. Soldea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Telefono: 944 977 177 Fax: 944 522 619
E-mail: jvg@gestionzamudio.es
WEB: 944 522 619

OPTIKA IKUSLAN
Bietanurreko graduatunak
Kontaktu lentakak
Eguzkitako betaurrekarak
Lodiazango markak
Ora kaleratzen, 3 hilabete, 91 452 28 18 ZAMUDIO

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklatzeko Zentro Aurreratua
SOGECAR
Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxe: 944 522 619

Tratamendu lerroak
-Erabilitako olioak
-Agortutako taladrinak
-Disolbatzaleak
-Automozio
hondakinen kudeaketa osoa

ZAMUDIO DEIRIO LURLANGILEEN ETXEA
COOPERATIVA AGRICOLA Y GANADERA DE ZAMUDIO DEIRIOS
HUNDEKATZEN ZERBITZUAK
Santi Mami auzoa, 1
Tfn: 94 454 18 00
Fax: 94 454 15 11
E-MAIL: ZAMUDIO@ZAMUDIO.ES

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Telefonoa: 94 454 18 00
Fax: 94 454 15 11

TRENA TXORIERRIN (I)

...ETA TRENA BAILARARA HELDU ZEN

Testua: Jose Angel Mentxka

Lezaman hasi eta Sondikaraino doan eremuan bizi edo lan eginez gero, mugitzeko orduan, pribilegiatutzat kontsidera gaitzke. Bilbo eta bere inguruagaz komunikatzeko hortxe dugu trena, ordu erdiro (laster 20 minuturo), beti orduan, eroso eta automobilen trafiko jasanezinetik kanpo.

Ezin gauza bera esan Larrabetzutarrek (autoa hartu eta Lezamaraino doazenak trena hartzera), edo Asuan eta Katean bizi edo lan egiten dutenek (lehen trena zeukaten bertan, orain ez), edo Aireportuaren erabiltzaileak (oraingo terminaletik ez oso urrun geltokia zegoen lehen).

Joan zaigun XX. mendean, Txorierrin bailara trenaren inguruan egituratzen joan da. Etxebizitzek eta industriak trenbidea hartu dute ardaztat. Askotarako eman dezakeen gaia denez zenbaki honetan

trena Txorierrin noiz eta zelan sartu zitzailen argitzen saiatuko gara.

“XX. mendean, Txorierrin bailara trenaren inguruan egituratzen joan da. Etxebizitzek eta industriak trenbidea hartu dute ardaztat”

Aurrekariak:

1830 Lehen lurrinezko trena. Urte batzuk lehenagotik lurrinezko lokomotorak ezagutu eta erabiltzen ziren arren, urte honetan munduko lehen trena deitutakoa jarri zen Liverpool eta Manchester herrien artean.

1832 Bizkaian jartzeko lehen saioak. Ingalaterrakoa ikusita, berehala Bilbo eta Balmaseda lotzea aztertu zen. Gerrate karlistaren hasierak asmo hutsetan utzi zuen.

1845 Irun-Bilbo egitasmoa. Urte batzuk geldirik egon ondoren, berriro hasi ziren proiektuak luzatuz. Irunetik Bilbora trenbidea egiteko baimena eman zen. Ez zen burutu.

1858 Bilbotik Urduñara. Bizkaiko lehen trena inauguratu zen. Diru aldetik ez zuen eman itxaroten zena eta urte batzuk pasa ondoren enpresak porrot egin zuen. Bigarren guda karlistak zerbitzua guztiz eten zuen.

1882 Bizkaiko lehen trenbide estua. Merkeagoa ei zenez, trenbide estuaren alde egin zen apustu. Bilbo eta Durango artekoa zen lehena. Urduñakoak ez beza-



SINDIATU TEKNIK
KIDUEKIN ZABINETIA
1995-1996

Nacho & Aitziber
Birtxinaga

Penetralia, 6
48176 ZAMUDIO

Telefono: 94 403 72 81



BIRITXI
Musikaren mundua eta Zuzenbidea

Penetralia, 6
48176 ZAMUDIO

Tel.: 94 403 72 80
94 403 72 82



Fle-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

la ekonomikoki arrakastatsua izan zenez, tren garraioaren aroari hasiera eman zion Bizkaian.


“1894 Inaugurazioak. Lehen aldiz lurrunezko lokomotorak Txorierriko lurak zeharkatu zituen”

...eta trena Txorierriara heldu zen.

1893 Baimena. 1886. urtean lehen urratsak egin baziren ere, 1893an “Compañía del Ferrocarril de Bilbao a Lezama” sozietate anonimoa sortu zen Bilbon, 500.000 pezetako kapitala zuelarik. Hasiera-hasieratik Derion egitekoa zen kanposantuarekin lotu ziren konpainia eta trena bera, bertara gorpuak eta hauen familiak eramateko asmoz.

1894 Inaugurazioak. Lehen aldiz lurrunezko lokomotorak Txorierriko lurak zeharkatu zituen. Begoña-Lezama eta Lutzana-Mungia lineak inauguratu ziren. Lehenak Lezama, Zamudio, Derio, Loiuko Bidekrutze auzoa, Artxanda eta Begoña lotzen zituen (14 km). Bigarrenak Erandioko Lutzana, Katea eta Asua auzoak, Sondika, Loiuko Larrondo eta Gaztañaga auzoak Mungian amaitzeko (17 km).

1895 Bilbo-Lezama osorik. Lezamako linea Bilboko Galtzadetaraionoz luzatu zen. Egunero 3 bidaia egiten zen norabide bakoitzean. Lokomotorak ere 3 ziren, Munichen egindakoak eta “Bilbao”, “Begoña” eta “Lezama” izenakaz bataiatutakoak.



Txorierriko trenbidearen mapa

1895 Istripu larria. Artxandako harrobietan 3 bagoikada harri gehitu ostean, Begoñatik Bilborantz aldats behera zihoala galgalk huts egin, trenbidetik irten eta istripua izan zen. Ondorioz, 13 lagun hil eta 18 zauritu ziren. Istripu larri horrek zalantzan jarri zuen egindako bidearen egokitasuna. Kontutan hartu behar da garai horretan Deriotik Bilborako tartea Artxanda igoz eta jaitsez egiten zela, % 3tik % 4 bitarteko maldei aurre eginez, eta mendiko tren bereziak ez direnak % 2tik gorako aldapetan arazoak izaten dituztela. (AIKOR 6. zenbakian Artxandatik gora zihoan bidea, oraindik oinez jarraitu daitekeena, azaltzen da).

1901 Lokomotora leherketa. Bilbotik Lezamara ondo zebilen lurrunezko lokomotora bakarrak eztanda egin zuen. Zerbitzua eten egin zen Olatik bide alternatiboa egin arte.

Ibilbide berria

1908 Olako bariantea. Bide berriak Derio, Larrondo, Sondikako Berreteaga auzoan biratu eta Ola igaro ostean tunelean sartzen zen (1.349 m), azkenek beste tunel bi (256 eta 818 m) igaro eta lehen legez Bilboko Galtzadetan amaitzen zuen ibilbidea. 7 km berri egin ziren, ibilbide osoa 3 km laburtuz eta 40 minutu aurreratu.

1909 Bilbo-Sondika. Berreteagatik Sondikako erdigunera geratzen zen zatia amaitu zen, Bilbotik Sondikara tren linea berria jarritz. Lutzana-Mungia ibilbideagaz elkartu egin zen Sondikako geltokian.

Informazio gehiago "1894-1994 Bilbotik Lezamarako Trenbidearen I. Mendeurren" liburuan. (Juan Olaizola Elordi)



itv Euskadi SA

itv ARRIGORRIAGA

Bilbo - Zaragoza autobidea
A-68 Km. 6,5
Kontsultetarako Tel.:
94 671 17 73

itv ZAMUDIO

Ugaldeguren I Industrialdea
8. Partzela
kontsultetarako Tel.:
94 452 20 20

IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKO OFIZIALA

ALDEZ AURREKO TELEFONOA 94 452 11 13

WASCOLIC SL

48170 Zamudio (Bizkaia)

94 452 23 20 faxoa





Bitiketan banatutako esneagaz egunean egunean GALLA gazta fresko
ATUJKA San Jakintza eta kokeak
BANAKETA DENDETARA, JATETXEETARA,
TABERNETARA ETA JATOKIETARA
Hainbat erretail produktuen distributorea:
edonon erretailaren kateak, bazterrikak, merkatuak, tokilariak, paterak

SONDIKAKO VI. ESKULANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA AZOKA

Sondikako Udalak antolatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK lagunduta, azaroaren 10ean izan zen eta goizeko 10,00etatik eguerdiko 14,30etara giro ezin hobea egon zen Sondikako Ikurrinaren enparantzan eta inguruan.

25 artisauk, 37 nekazari eta 17 abeltzainek hartu zuten parte azokan, eta azpimarratzekoa da haietako zenbait herrikoak bertakoak izan zirela: Iker Madariaga eta Jon Madariaga harakinak, Roberto Gómez eta Ciro Duque egurra lantzen, Víctor Fernández boj egurra lantzen eta Teodoro Bidaburu forjan.

Mikologia erakusketa ere izan zen, Galdakaoko Barrengorri Elkartearen eskutik.

Eta hori gutxi balitz, beste zenbait ekitaldi ere egon ziren: hamaiketarik aurrera (eta bukatu zen arte) Idiazabaleko gaztaren eta txakolinaren dastaketa izan zen, Udalak horretarako prestatu zuen txosnan.

Eguerditik aurrera, umeek poni gainean paseotxoak emateko aukera izan zuten eta ordu batetan behi-aziendaren heziera ikusteko aukera izan zen.

Testua eta argazkia: Puri Martinez



PREZIOAK:

Antxoa potea: 2 euro.
Atun potea: 2,5-5 euro.
Tolosako indabak: 9 euro.
Gernikako indabak: 10 euro.
Odolostea: 6 euro.
Txakolina: 4,5 euro.
Patxarrak: 7-9 euro.
Euskal pastela: 7,5 euro.
Almendra garrapinatua: 2,4 euro.

SARIAK HURRENGOAK IZAN ZIREN:

Eskulangintza arloko aurkezpenik onenarentzat:

1. saria: Julia Gómez Blas, Portugaletekoa (boliloak)
2. saria: Víctor Fernández, Sondikakoa (boj egurra)

Nekazaritza arloko aurkezpenik onenarentzat:

1. saria: Adela Andikoetxea, Urdulizekoa (ortuariak)
 2. saria: Pedro Etxebarria Urrutia, Gatikakoa (fruitak)
- Hainbat tokiko eta gai ezberdineko stan jarri zen, adibidez:* Nafarroako ardo apartxoa, cabrales gazta, patxarana eta pattarrak, mer-meladak, etab.

UDAZKENEKO ORTUKO LANAK

Urtea aurrera doala eta, hemen gaude berriro ere neguaren atarian ia konturatu gabe. Sasoi honetan ortuan badago zer eginik ordea, horretarako eguraldiaren menpe egon behar badugu ere. Izan ere, sasoi honetan euria nahikoa egiten hasiko da eta ez da komenigarria izango lurra gehiegi zapaltzea, bestela, gehiegi trinkotu daiteke. Horregatik, euria atertu eta lurra zerbait lehortzen denean aprobetxatuko dugu lanak egiteko.

Udazkenean jasotzen diren barazkiak

Alde batetik, udazken hasieran indabak eta kalabazak jaso bagenituen, eurak ondo gordeztea izango da gure lehenengo lana. Indabak kontserbatzeko modurik onena egun pare batean izozkailuan edukitzea da koko xomorroa hiltzeko. Kalabazak ordea, toki epel (gutxienez 15°C) eta airetsuan gordeko ditugu.

Urtaro honetan beste barazki batzuk ere jasotzen dira, adibidez, azak, azaloreak, borrajak, espinakak edo letxugak. Zein hilabete edo egunetan jarri genituen, ba lehenago edo beranduago egongo dira prest jateko. Porruak eta azelgak ere udazken eta neguan zehar tartekatuta hartuko ditugu.

Eta udaberriari begira, zer jarri?

Hilabete hauetan ereinketa batzuk egin daitezke, uza udaberrian jasotzeko, edo bestela, udaberriaren zain bargaude ereinketak edo landaketak egiteko, momentu hau lur horiek ongarrizko aproposa ere bada.

Orain egin daitezkeen ereinketa tipikoen artean, idarrak, babak eta berakatzak daude, baita atxikoriak eta eskarolak ere. Leku hotzak ez badira, kipulak ere jarri ditzakegu. Bestalde, abono berdea deritzona ereinketa ere momentu ona da.



Testua: Derioko Nekazaritza Eskola (Mendiko)

**LEJARRENE
JATETXEA**



GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Gentzen 59 - TEL: 96 955 51 00 - FAX: 96 955 61 77
48956 LEZAMA (BIZKAIA)

S.A.T. LEGV

LEZAMA
Gaitolaza Auzoa, 36
48156 LEZAMA - Bizkaia
Tel.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

SEGURTASUNA EDO ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO ESKUBIDEA

Segurtasuna aitzakia izan da beti komunikazioak kontrolpean eukiteko eta gero eta ahalegin gehiago egiten dabez horretarako. Baina ekintzok gure eskubideen kontrakoak dira gero eta gehiago be.

Irailaren 11z geroztik segurtasuna da punturik garrantzitsuen eta Internet segurtasunaren arloan zulo bat dala ikusi da, ez dagoalako kontrolatuta. Internet sareak garrantzi handia dauka gaur egun.

Orain dala gitxi, DNS root-servers, DOS (Deny Of Service) erasoak erabiliz Internet blokeatzen ahalegindu ziran. Jende guztiak erabilten dauz serbidore horreek Internet sarean nabegatzeko. Munduko hainbat lekutatik sortutako eskaera asko egitea lortu eben, eta serbidoreak eskaera guztioi ezin erantzun eta jausi egin leitezke. Horixe zan helburua, baina ez eben lortu, bakarrik lortu eben Internet astirago joatea, eta arazo horrek be ez eban luzaroan iraun. Internet blokeatuta geratzea lortu ezker, sekulako galerak eragingo litzatezke.

Urtero-urtero Estatu Batuetako enpresetan sartutako birusak dirala-ta hainbat milioi galtzen dira. Entzun da Al-Qaeda

talde terroristaren kideak Internet erabilten dabela euren arteko komunikabide bezela.

Gero eta argiago dago Internet kontrolpean izan nahi dabela. Gure eskubideak ez dabez errespetatzen, legeak ataratzen dabez txarto eginda, eta beti ipintzen dabe aitzakitatzat segurtasuna.

Gure beharretara heldu dira kontrolak; programak instalatzen dabez telefonoa eta Internet kontrolatuta eukiteko. Internetera sartzen zaran bakotxean serbidoreetan azaltzen da zer egon zaran egiten. E-mail edo posta elektronikoren bat bialtzen dozunean serbidoreetatik doa eta leidu egin leiteke. Horren aurrean kriptografia daukagu, PGP, baina mugak ipini gura dabez informazio hori ikusi ahal izateko.

Echelon

Herrialde batzuk ahaleginak egin dabez komunikazioak kontrolatzeko eta orain dala urte batzuk Echelon Sarea atara eben. Sortzaileak eta sare horren partaideak Estatu Batuak, Kanada, Australia, Zelanda Berria eta Ingalaterra dira. Echelon ingelezko hitza da eta "belarri handia" esan gura dau.

Helbide interesgarriak:

<http://www.kriptopolis.com>
<http://telelab4.iti.uned.es/lssi/>
http://diarioed.com/columnas/eco/2001_05_13_17_42_36.html
<http://www.terra.es/personal/parabolo/villanos/lssi.htm>

Asmoa zan legez kanpoko gauzak topatzea eta krimenaren kontra erabiltea. Ordenadoreez baliatuz arakatzeko konplikatuak egiten dabez komunikazio guztietan (faxes, telefonoa, e-maila eta abar).

Aitatutako sortzaileok ukatu egiten dabe sare hori egon dagoanik, baina jende askok -Frantziak, esate baterako- baietz dino. Salaketa asko dago esanez Echelon sarea espionaje ekonomiko egiteko erabili dala. Jende askorentzat horretarako erabilten dabela argi dago.

Helbide interesgarria:

http://webs.ono.com/usr016/Agika/6temas_relacionados/echelon.htm

Testua: Alberto Legarreta

CARNIVORE, MAGIC LANTERN, NETBUS

Carnivore. FBIk erabilitako sistema da, Interneteko e-mailen artean arakatu eta susmagarriak diranak aurkitzen ditu. Interneteko serbidoreetan instalatzen da.

Informazio gehiago:

<http://www.yupimsn.com/tecnologia/internet/cibercrimen/carnivore/>

Magic Lantern eta netbus. Troyano programak, birus bat bezela. Zure ordenadorean instalatzen dira eta urrinetik hartu leiteke ordenadorea kontrolpean. Estatu Batuetako agintaritzak ahalegin handiak egin ditu Magic

Lantern programaren aurkako antibirusik atara ez daiten, FBIk egindako tresna dalako eta kriminalen kontrako burrukan erabilten dabelako.

Hurrengo helbide honetan daukazu horren deskripzioa:

<http://www.vsantivirus.com/03-12-01.htm>

LSSI

Estatu espainiarren lege barri bat da. Internet legeztatu gura dabe, hutsune asko dagoalako. Legea hementxe ikusi geinke:

<http://www.icta.es/Spanish/LSSICE/indice.htm>

Merkataritza elektronikoa eta merkataritzako Web-orrien ingurukoak arautzea da Lege horren asmo nagusia. Eta gauza bera egin gura da Spam edo ezkutuko email publizitarioen aurrean.

Legeak eztabaida handia ekarri dau, adierazpen-askatasunen aurka doalako; web-orri asko kendu egin dira eta interneteko kanpaina asko dago lege horren aurka.

SUINOR COMPUTER S.L.
 Torrelaragoti. Industrialdea-3 blokea-3.naboa-ZAMUDIO (Bizkaia)

BARAKALDO INFORMATIKA
 Miranda Elorbidia 3
 48902 BARAKALDO-BIZKAIA
 Tfnoa/Faxa: 94 4781643

LEIOA INFORMATIKA
 Iparragire Elorbidia 58
 48040 LEIOA-BIZKAIA
 Tfnoa: 94 4804638
 Faxa: 94 4807145

e-mail: rocco@arrakis.es

HACKERS
CIBER

- ON LINE JOKUAK
 - CHAT-OK
 - WEB ORRIALDEAK

MIXEL ZARATE, 3 (CORREOS AURREAN) SONDIKA
 Tfnoa: 94 453 75 78

VIDEO-CLUB EL TRASGU

• DVD
 • VHS
 • PLAY STATION
 JOKUAK
 • OPARI SALMENTAK

Iurrigano, 1 • Tel.: 944 710 156
 48150 SONDIKA

AURKIKUNTZA ARKEOL

Zamudioko Oxinaga (Uxina) aldeko zubiak

Testua: Arantzazu Mendiguren

Erdi Aroan oraindik ere erromatarren antxinako komunikazio-ibilbideak erabiltzen ziran. Horreetariko ibilbide bat kostaldekoa zan —arabiarrek Ebro ibaiaren inguruan ebilzelako- eta Bizkaia zeharkatzen eban; Frantziatik Gipuzkoan sartzen zan, Bizkaia zeharkatzen zan barrukalderantza, eta Burgosetik edo Kantabriatik Compostelako Santiagorantz joian.

Kostaldekoko ibilbide nagusia Frantziatik sartzen zan Irunera eta Donostia, Orio, Zarautz, Getaria, Itziar igarota Mendaroraino heltzen zan eta Bizkaian Bolibar, Ziortza (Zenarruza), Arbatzegi, Arratzua, Gernika, Morga, Larrabetzu, Lezama, Zamudio eta Bilboraino. Bizkaiko Santiago bidearen (Donejakue bidea be deitzen jako) inguruko erreferentzia gitxi dago eta XV. mendean hasten dira. 1491. urtean erromes garrantzitsu bat, Mártir izenekoa, Arzendjan apezpikua, kostaldetik ibili zan. Bizkaian ibilitako erromesen aita-menak ere Urduñako artxibategian aurkitu daitezke, adibidez.

Antxineko ibilbide horreetako bat Txorierriatik pasatzen zana dogu." Bilbo-Gernika bide zaharra" izena dauana ibilbide horren zati bat da. Gernikatik etorren eta Larrabetzutik pasatu beharrean Lezamara joian zuzenean .

Batzuk dinoe Larrabetzutik pasatzen zala eta Artxandarantza joiala, baina beste batzuk, oster, esaten dabe bidea Lezamatik urtetan ebala, Santamañetik Begoñara; eta badira beste batzuk ere Zamudioko zelai batzuetatik gora Santo Domingorantza joiana esaten dabenak. Zamudioko Aranoltza auzoko fabrika baten obrak dirala-ta aurkikuntza batzuk egin ziran, eta horrei esker baieztatu daiteke Bilbo-Gernika bide zaharra Lezamatik eta Zamudiotik pasatzen zala, Larragoiti Torrearen eta gaur eguneko Uxina base-riaren ondotik, Artxandarantza joateko.

Txorierriko Korredorearen obrak dirala-ta Zamudioko Oxinaga aldean antxinako bide horren arrastoak topatu dira eta horren inguruan ikerketa arkeologikoak hasi dira. Harriko bidearen zati batzuk aurkitu dira. Era berean harriko zubi bi



Larragoiti Torrean hasiko da oinezko bidea



Oxinaga auzoko ingurua benetan polita da

topatu dira eta hirugarren baten arrastoak baino ez, azken hori 1983. urteko uriolek eroan eben-eta.

Aurkikuntza horreen ondorioz Ana Isabel Prado eta Maria Jesús Fernández historialariek ikerketa batzuk egin dabez Zamudion aurkitutako zubi horreen

inguruan eta hona hemen atara dabezan ondorioetariko batzuk. Dokumentuetatik lortutako datuakaz jakin da Zamudioko zubi hori 1617 urtean egoala eta egurrezkoa zala -XVII. mendean zubi asko ziran egurrezkoak- eta "La puentejilla de Larragoiti" deitzen jakola orduan. Ana Isabellek azaldu deuskunez "toki horretan

OGIKOA "USTEKABEAN"

k eta kaltzadea errekuiperatuko dira azkenik

*"Bendejea eroateko eta
erromerietara joateko
erabilten zan
kaltzadea"*

auzi bat egon zan, ez zalako gura gurdiak bertatik igaroterik. Independentziako gerraren ostean Karlistadak etorri ziran eta Zamudioko Udalak zor handiak zituan tropak mantentzegaitik. Orduan bideak apurtuta egozan eta horregaitik ez eben nahi bertatik pasatzea. Horrelako datuek lagundu dabe bidea bertatik pasatzen zala frogatzeko.

Donejakue bidea Bizkaitik igarotzen zala eta antxinean jende asko ibiltzen zala frogatu da beraz. Ahozko testigantzak ere jaso dira eta horreen arabera XIX. mendean bendejea eroaten ebenak, posta zerbitzuan ibiltzen ziranak eta erromerietara joaten ziranak ere pasatzen ziran.



Ibilbidean dagozan zubiei esker salbatuko da kaltzadea

IA KILOMETRO BIKO OINEZKO IBILBIDEA ATONDUKO DA UDARAKO

Aurkinkuntzak dirala-ta, Aldundiak Txorierriko Korredorearen ibilbidea aldatzea onartu eban eta horrerik esker zubien, kaltzadearen eta Larragoiti Torrearen artean dagoen alderdia bereoneratuko da. Aldundiak onartutako hitzarmen baten arabera, sei hilabete bidea konponduta

egongo da oinez ibilteko. Torrelarragoiti poligonoan hasiko da Erdi Aroko bideak zelakoak ziran gogora ekarriko deuskun hau. Bertatik pasatuko diranak Zamudio eta Lezamako lehenbiziko letrak dituan zubia ikusteko aukera izango dabe. Altzairuzko baranda bat eta metro biko

gitxienezko zabalerea izango dau eta bankuak, mahaiak eta paperontziak egongo dira jendearentzako.

Lanok egiteko 1'52 hektarea desjabetu behar izango dabez eta 204.000 euro erabiliko dira guztira.

OLANDO S.L. AROSZTEGIA

- Sukaldeko altzariak, neurrira eginak
- Bainugelako altzariak, neurrira eginak
- Horma-armairuak
- Mahaiak eta aulkiak
- Txokoetarako altzariak

Lirio Industrialdea
115 plataforma, 34 nebea
48960 Galdakao (Bizkaia) Tel/Fax: 94 456 06 06

**LEANDRO
LANDETA**

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

HARAGITEGIA ALBERTO

Txorierri etorbidea, 6
Buz. 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

ARTIZAR

MARKA JARTZEKO TALEAK

Justo Aguirre, 3
Tfn. 94 453 01 50

48150 SONDRA
Bizkaia

FONTANERIA DOBARAN



Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Suetak
- Bainugelak

94 453 3860
658 75 9084

Nitrino, 4 - 48150 SONDRA



EUSKAL SELEKZIOAK ETA KIROLA BULTZATZEKO TALDE BERRIA

Animatuta dabil jendea. Korrika ari dira batzuk, baloiaren atzetik hamaikakoa, frontoiko hormetan pilotakadak gero eta gogorrangoak dira, bizikleta gainetik jeitsi barik ari dira azkarrenak. Kirola maite dute guztiek. Kirolean ari dira, baina ez euren markak hobetzeko bakarrik, hemendik aurrera konpromiso berriak hartuko dituzte eta. Larrabetzun euskal selekzioaren alde jarri dira martxan kirolariak, baina herriko kirol jarduerak ere bultzatu gura dituzte.

Testua: Patxi Gaztelumendi

Aspaldi sortu zen Euskal Selekzioen Aldeko Iritzi Taldea (ESAIT), Euskal Herri mailan sortu ere, baina orain herrietan ere taldeak sortzen ari dira. Bizkaian dagoeneko badaude batzuk, Larrabetzukoa gehitu ko zaie, Balmaseda, Deustu eta Arrigorriagakoei. Beraien asmoa Euskal Selekzioen alde lan egitea da. Iritzi hori zabaltzea, kirolariak laguntzea.

Gure herrian batzar zabal bat egin zen zapatu eguerdiz. Eta ia 40 lagun batu ziren bertara. Txandaldunak gehienak. Tartean ziren kirolari profesionalak ere -Mikel Artetxe Euskaltel Euskadikoa, Iker Amarika pilotaria, Xabier Artetxe Euskadi Fundaziokoa eta Olarrako zuzendaria...-. Uritarra futbol taldeko jokariak, Patakoneko triatloilariak, Olarreta pilota eskolako partaideak, korrikalariak, mendizaleak, kirolzaleak... denetarik batu zen batzarrera.

Jon Aurrekoetxea "Gulu" batzarra deitu zuen kideetako bat da. Eta beragana jo dugu, ESAITen talde honen sorrerari buruz berba egiteko. Berak dioenez "gonbidapen eskutitz bat bidali genien herriko kirol talde guztiei (Uritarra, Patakon, Mikel Artetxe txirrindulari zaleak, Olarreta...) eta Hori Bai gazte elkarteari". "Gure asmoa euskal selekzioen aldeko lana egitea bada be, uste dugu Larrabetzun kirol jarduera landu eta finkatu egin behar dela", eta gaineratzen du: "kirola egin egiten da, baina kirolarien eta taldeen arteko harremanik ez dago".



Jon Aurrekoetxeak, "Guluk", euskal selekzioaren aldeko apustua egiten du

Lehen batzar horretan horretaz jardun ziren batik bat. Gauzak elkarrekin egin, eta elkar laguntzeko beharraz ere. Mikel Artetxe txirrindulari zaleen elkartean gertatutakoak, adibidez, gogoeta piztu du, "jendea ez omen dago lan egiteko gogoagaz, eta taldea ia desagertuta dago". Uritarran orain zuzendaritza barria dago, eta martxa berria hartu du taldeak; Olarreta pilota eskolan, umeen gurasoak dira inplikatzaren direnak, eta orain asteroan umeen pilota partiduak izaten dira frontoian. Egon gauzak badagoz, baina ez dago harremanik kirol bateko eta bestekoen artean.

Guluk dioenez, interesgarria litzateke adibidez "Uritarrak bere klubaren eguna

ospatzen duena, ez dadila izan bakarrik sarrera garestiago izateko, baizik eta herrian jaia izan behar da, klubaren eguna, herriaren eguna". "Egun horretan herri guztiak jo behar du futbol zelaira, igarri egin behar da, eta gure laguntza eman Uritarrari" gaineratzen du. Eta hola kirol guztiekaz egin beharko litzatekeela ditzo: pilotan, txirrindularitzan, krosetan...

40 lagunak berriro batzeko geratu dira. Futboleko Euskal selekzioak gabonetan jolastuko duen partidurako irteera berezia prestatuko da, ESAITen aldeko krosetara bidaia antolatuko da (Behobia-Donostia karrerako bidaia talde honek antolatu zuen) eta ESAITen materiala barra-barra saltzen da herrian.

CAFE-BAR
BIDE-GORRI
Ere askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8 (7)Wineko irekia
Tartan Kalea, 9
48100 TAMUDIO (Bizkaia) Tel.: 94 454 46 75


OKINDEGIA-DASTALEKUA
Aretxalde, 64
Tel.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

ANOLKULARITZA
PIKALA
JARDORAI
KONTABILITATERA

Aretxalde 68 Tel.: 94 455 66 38
48196 11 /AMA (TUTXALIA)

SUKALDARITZA

ETXEKO SUKALDARITZA

KARAKOLAK

Osagaiak

6 piper txorizero ziku, oliba olio birjina, 2 kinpula, gatza, porru bat, tomatea, perrexila, ogi azala, berakatza

Prestatzeko modua

Karakolak garbitzeko ipini danak gora begira eta bota gatza banan-banan ganera. Euki 12 orduan, eta ataratakoan ur epeletan ondo garbitu. Bota ur garbiari binagrea eta euki bertan ordu bete. Garbitu barriro ondo.

Egosi karakolak ordu betean porruagaz, kinpula erdiagaz, perrexil apur bategaz eta berakatza atal bigaz.

Sartenean ipini oliba olio birjina, kinpula bat eta erdi txikituta eta eginda dagoeanean bota ogi azal zati batzuk, piper txorizeroak —aurretik beratuta—, tomate txorrozpada bat eta baso bete salda edo ur. Hau guztia euki hamar minutuan egiten. Gero atara karakolak kazuela batera ondo eskurrituta.

Beste sarten baten ipini koilarakada bi olio, berakatza atal bat txiki-txiki eginda eta hau egiten danean bota solomo filete bat, txorizo bat eta pernil apur bat, honek guztiak txiki-txiki eginda.

Hau egiten danean bota karakol arte-ra; nahastu eta aurretik egin dogun saltsa txinotik pasatu eta ganera bota. Euki 15 bat minutu irikiten.



Mari Tere Onaindia



ANTXOAK TXAKOLIN ERARA

Osagaiak

4 laguntzako osagaiak:
12 tamaina erdiko antxoak
2 baratxuri-atal (xaflak)
Pipermin gorriaren zatitxo bat
Perrexil txikitua
Bizkaiko txakolina edalontzi erdi
Ogi birrindu goilarakada bete
Olio
Gatza

Prestatzeko modua

Lehenengo eta behin, antxoak garbitu behar dira, baina hezurra kendu gabe. Lapiko batean, olio berotu behar da.

Era berean, baratxuria eta pipermina gorritu behar dira.

Gorritu ondoren, antxoak, txakolina, perrexila eta ogi birrindua gehitu behar dira. Minutu eta erdiz eragin eta, azkenean, gatza bota.





**CAFETERIA
iAZi**

Eguneko menua eta
Menu berezia

JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)



Amaiketako
Abierto los 7 días de la semana

Unión Kalea, 1 Bajo - DERIO
Tfno. 944 540 106

- Eguneko Menuak
- Kuzkizteak
- Olibakoa Erreta
- Kurta Zabala

DERIO FRUTADENDA



Sollube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Haur saila

"Marimuki, ziber-mamua eta zopea"

Antton Dueso

Liburu honetan Marimukiren istorio bi ezagutzeko aukerea dogu. Lehenengoan, ordenagailu ondoan jesarrita aurkitzen dauen fantasma-ri aurre egiten deutso, eta bigarrenan "lurruna darion likidoa" (zopea) jan ezaren barragarrikeriak.

Nagusien saila

"Ipuin batean bezala"

J.M. Irigoyen

Sara eta Ander dira eleberri honetako protagonistak, baita euren pasadizoak, gazi-gozoak, maitasuna eta biziaren aldeko kantua...

DISKOAK

"In-komunikazioa"

Fermin Muguruza

Irundarraren bakarkako hirugarren lan honetan, inkomunikazioari buruzko hausnarketea dogu entzungai.


Selekzionatutako musiko eta abeslariekin egina, estilo nahaske-tea sortzen dau. Dena jamaikar erritmoan (soul, ska, rap, dub..), eta azpitik eta gainetik munduaren inguruko mezuak.

Lapurtar kobalariak

Pantxo eta Peio

Manex Pagola, Zaldubi, Ithurbide, Martin Arrupe, Ganix Halzuet, Mendiage idazleak dira hamabi kantuz osatutako diska honen iturri. Pantxoak, Peiok eta Mixel Ducauk ekoiztu eta landutako lana da.

SOLUZIOA



DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Zein da benetako Goikoelexalde, goikoa ala behekoa? Aurkitu dituzu 6 ezberdintasunak?



UMOREA

TITIA GUSTUKO

Emakume bat joan da medikuarengana. Arazo txiki bat ba omen zuen. Titi bat ondo omen zeukan eta bestea ikaragarri eroria, luze-luzea.

— Begira, doktore jauna, hau pasatzen zait.

Erakusten dizkio bi titiak, eta...

— Bueno, horrek badauka... konponbidea badauka. Egin behar duzu, luze-luze daukazu titi horretan, titi-puntan gazta zaharrarekin igurtzi, eta ikusiko duzu nola gizona ez zaizun etortzen, ume txikia izango balitz bezala, titia txupatzera.

Egin du, eta hortik bi hilabetera gero eta luzeagoa.

— Bueno, zer pasatzen da? Ez al zenuen gazta zaharrarekin igurtzi?

— Bai, gazta zaharrarekin igurtzi nuen, eta orain, ordea, periodiko eta ardo botilarekin etortzen zait.

ESAERA ZAHARRA

ABENDUKO EGUNA, ARGITU ORDUKO ILUNA

Abenduan, urteko azken hilabetea, eguna hotza izan ohi da eta gaua luzea. Hala dio, behintzat, esaera honek:

Abenduko Eguna, Argitu Orduko Iluna

AGENDA

IRTEERAK

LEZAMA. Baztanerako mendi irteera. Abenduaren 6tik 8ra arte. Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

ZAMUDIO. Compañía Nacional de Danza ikusteko irteera. Abenduaren 12an, Arriaga Antzokian.

ZAMUDIO. Ipuin Kontalari saioa. "Show-collage: beste kontu bat". Abenduaren 12an, arratsaldeko 17:30etan haur liburutegian.

ERAKUSKETAK

SONDIKA. Txorierri-Peak Lenin dia-positiben erakusketa. Abenduaren 13an, arratsaldeko 20:00etan Gaztetxean.

DERIO. Derioko argazki zaharrak. Abenduaren 16tik 26a arte Txoria Kultur elkartearen.

ANTZERKIA ETA FILMEAK

SONDIKA. "Oliver Produktions". Abenduaren 20ean, arratsaldeko 20:00an Gaztetxean.

Zinea. Ostiralero gaueko 21:00etan Gaztetxean.

LEZAMA. Rudolf filma. Abenduaren 13an. Spirit filma. Abenduaren 20an. Arratsaldeko 17:30etan Kultur aretoan.

BESTELAKOAK

DERIO. Sutondoan elkartearen X urteurrena. Abenduaren 14an, arratsaldeko 19:00etan Txorierriko Institutuko aretoan.

GABONETAKO EKITALDI BEREZIAK

LEHIAKETAK

SONDIKA. Gabonetako postalen lehiaketa. Oinarriak, udaletxean eta liburutegian. Azken eguna abenduaren 9an.

LOIU. Gabonetako posta txartelen IX. Lehiaketaren sari banaketa. Abenduaren 17, arratsaldeko 17:30etan.

LOIU. Gabonetako posta-txartelen erakusketa Kultur Etxean. Abenduaren 17tik 27ra bitartean.

ZAMUDIO. Postalen lehiaketa. Emateko epea, abenduaren 3a baino lehenago kultur bulegoan. Sariak Olentzero egunean banatuko dira.

LEZAMA. Gabon-txartelen IV. Lehiaketaren sari banaketa. Frontoian, abenduaren 15ean, 17:30etan. Galdetu Udal Liburutegian.

OLENTZERO EGUNA

SONDIKA. Olentzero eta Jaiotza biziduna. Abenduaren 24an, arratsaldeko 17:00etan.

LOIU. Kalejira Olentzerorekin. Ferilekutik frontoira. Abenduaren 24an arratsaldeko 17:00etan. Opari banaketa 17:30etan frontoian.

DERIO. Ludolentzero, kalejira. Abenduaren 23an, goizeko 11:00etatik 13:00era ludotekan.

DERIO. Olentzero Ipar alde abesbatzarekin. Abenduaren 24an udaletxean.

ZAMUDIO. Olentzero eguna. Pailasoak edo ipuin kontalariak (zehaztu gabe), bazkaria, kalejira eta oparien banaketa eskolan. Azaroaren 24an.

LEZAMA. Olentzero jaia. Abenduaren 20an, Lezamako eskolan. Lezamako eskolak antolatuta.

LEZAMA. Kalejira Olentzerorekin. Abenduaren 24an, 17:00etatik aurrera. Gurutze Dantza Taldea, Zorritzetan eta udalak antolatuta. Galdetu Udal Liburutegian.

IRTEERAK

SONDIKA. Max Center merkataritzaguneko Camelot Parkera. Abenduaren 24an.

LOIU. Bilboko Erakusketa Azokako PINera. Goizez. Izena eman eta ordaintzeko epea: abenduaren 12tik 19ra.

LOIU. Gorbeiarako irteera Untza mendi taldearekin. Abenduaren 22an batzokian.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

SONDIKA. Tuko, Truko eta Bolonbailer pailasoak. Abenduaren 20an, arratsaldeko 17:30etan liburutegian.

LOIU. Ipuin kontaketa Rosa Mª Martinezekin: "Ilargiaren lapurrak". Abenduaren 23an, arratsaldeko 18:00etan liburutegian.

DERIO. Gimnastika erritmikoa Miragarri taldearekin. Abenduaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan polikiroldegian.

DERIO. Kirol ekintzak. Abenduaren 24an eta 31ean, goizeko 11:00etatik 13:00era polikiroldegian.

LEZAMA. Kiki, Koko eta Moko pailasoak. Frontoian, abenduaren 15ean, arratsaldeko 17:30etan. Sarrera dohainik. Galdetu Udal Liburutegian.

NAGUSIENTZAKO EKITALDIAK

DERIO. Gabonetako kontzertua Larrabetzuko Musika Eskolarekin. Abenduaren 16an, arratsaldeko 19:30etan liburutegian.

DERIO. Gabonetako bingoa. Abenduaren 18an, arratsaldeko 19:30etan Nagusien etxean.



ENEZ, EGIA ESA- TEKOKO, EZ ZAITUT HAIN ETSITURIK IKUSTEN...

ETSITURIK?! EGIA BERRIKO PIRZIN ETA TATUAIAGAZ.

PIRZINA!!

TATUAIA!!

TXUKI, JARRI ATHLETIKEN PARTIDUA!

BUË!

AGHH!!

BUAG!!!

IOBB!, KALZON BERRIRO!, EZIN DOGU GEHIAGO ZAPALKUNTZA HAU ONARTU GENOZIDA HONEK TRAGEKO GAITU AZKENEAN. ZEOZER EGIN BEHAR DA!?, EUSKAL HERRIA DEPENDATU BEHAR DOGU!?, DOMEKA HONETAN GOAZEN DANOX MANIPARA!?, JAKITUN EGON DAITEZEN, POTEREAAAAA GUGAN DAGO!!!

GEURE ESKUAN!!!

AAGGG!

ZE, "PIEDRAS"
IKUS DOZU??!

Hornitu

mobila BBK-ko kutxazainetan



Hornitu mobila erarik erosoenean

Edozein izanik telefonia mobileko zure operadorea, dagoeneko, edozein txartelekin hornitu dezakezu zure telefonoa, erraz-erraz, BBK-ko edozein kutxazainetan.

bbk